

UDAL AURREKONTUA - 2003 INBERTSIO PROPOSAMENA

Kanposantua haunditu eta zerbitzu publikoak hobetzea, 2003ko inbertsioen oinarriak

■ Gobernu Taldeak ia 2.500.000 euroko inbertsio programa aurkeztu zuen asteazkeneko bileran ■ Auzoek meiorak eskatu dituzte urbanizazio eta infrastrukturetan ■ Datorren bilera hurrengo asteazkenean da.

UDAL Gobernuak asteazkenean aurkeztu zuen 2003rako inbertsio proposamena, aurrekontu partehartzaileetako bileran. Denera, 2.500.000 euroko inbertsio proposamena egin du eta kanposantua haunditu eta zerbitzu publikoak hobetzeak eramango dute dirurik gehiena. Ibai Aristimuño eta Jesus Rebollo zinegotziek azaldu zuten gaur egunean nitxoetan 60 hilobi eskas gelditzen dira eta kanposantua haunditzea benetan presazko kontua da. Bestalde, adierazi zuten anpliazio obrak 1.216.400 euroko inbertsio kostua izanagatik, neurri haundi batean bere burua ordainduko duen proiektua dela.

Gobernuak herritarrei aurkeztutako inbertsio proposamenak zerbitzu publikoak ditu bigarren zutabe nagusia. 828.073 euroko partida proposatu du eta denera 30 proiektu inguru egingo dira: parke eta jardinak egokitu, bideak konpondu, urbanizazio lanak eta abar. Zerbitzuetako diru partida haundiena Floridan *La Cumbre* ingurua berritu eta egokitzeko proposatu da.

Udal Gobernuak inbertsio proposamen horiek eta beste batzuk aurkeztu zituen asteazkeneko bileran. Hala ere, bileran aurrena herritarrek auzo eta taldeetako ordezkariak izan zuten hitza, eta haiek ere egin zituzten proposamenak. Horiek denak kontuan hartuta, proposamen definitiboa datorren asteazkenean eztabaidatuko da, eta nahi duenak Udaltzainetan izango du proposamena eskura.



40 lagun inguru bildu ziren aurrekontuetako bileran eta jendeak parte hartze aktiboa izan zuen.

UDAL GOBERNUAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA	
2003ko inbertsio proposamena	Denera 2.488.351 euro
Proiektu nagusiak	
Hilerria haunditu	1.216.400 euro
Zerbitzu publikoetako obrak	828.073 euro
Hirigintzako beste proiektuak	90.000 euro
Ongintza (mantenimendua)	90.000 euro
Ingurugiroa	51.010 euro
Kultura	47.000 euro
Grua	42.000 euro
Piszinako kristalera	42.000 euro
Kiroldegiko bulegoak	33.000 euro

Grua eta piszinako kristala
Datorren urteko beste bi proposamen dira grua zerbitzua jarri eta piszinako kristalera atzeratzea. Gaur egunean Udalak grua kontratatua dauka eta aurrera begira zerbitzua erabat bere gain hartzea eta grua erostea proposatu du.

Piszinako kristalera aldatzearena aurreko urteetako eskarrietatik dator. Gaur egunean piszina eta piszinako graden artean kristala dago

jarria. Igerilari eta waterpoloko taldeek esana dute horrek asko hozten duela kirolari eta afizioaren arteko giro hori, eta eskatu zuten kristalera aldatzea. Horixe da datorren urtean egitea proposatzen dena: kristala atzeratu, eta grada eta piszina arteko espazioa libre utzi.

Auzoen eskariak

Asteazkeneko bileran herritarrek egindako proposamen

gehienak auzoetatik etorri ziren. Gehienek, orokorrean, infrastrukturek berritzea eta egokitzea eskatu zuten.

Elizatek esan zuen beti petatxoak egiten direla eta auzoak benetako berritua behar duela; Karabelek plaza egokitzea eta aparkalekuak eskatu zituen, batez ere futbol partiduak daudenean sekulako nahasmena izaten dela-eta; Santa Barbaran trafikorekin dituzte arazo gehienak eta ijitoak akanpatuta egotearekin ere keja ziren; Ereñotzuk frontoia eskatu zuten; Etxeberrikeri azeri eta barandilak konpontzea.

Beste era bateko inbertsio eskaerak ere izan ziren: besteak beste, Tilosetako frontoia estaltzea, Emakumearen Zentroko lokala egokitzea eta Bai Euskarari kanpainerako bi urtetarako eman zen laguntza aurtan ere ematea lana bukatzeko. □

Behartsuentzat jana biltzen Hernaniko eliza ebanjelikoa

HERNANIKO familia behartsuentzat jana bilduko du Elizak, gaur eta bihar. Jana LIDL supermerkatuan bilduko dute eta hernaniar guztiei dei egin die ahal duten neurrian laguntzeko, familia behartsuentzat zerbait ematen. Ekimena bultza dutenek diotenez "jende honekin solidarioa izan nahi duenak badaki noiz eta nora jo behar duen". □

ETXERAT ELKARTEA

Kontzentrazioa gaur 'iheslari guztiak etxera' lemarekin

ETXERAT elkarteak kontzentrazioa egingo du gaur 20:00etan Gudarien Plazan. Euskal Presoen eskubideak errespetatzeko eskatzeaz gain *iheslari guztiak etxera* lema izango du gaurko kontzentrazioak. Etxeretek dei egin die hernaniar guztiei kontzentrazioa azaltzeko. □

Gabon kontzertua gaur Juan Bataiatzailean

URTEROKO Gabon kontzertua gaur emango dute Juan Bataiatzailea Parrokian, arratsaldeko 20:00etan. Guztira 9 talde ariko dira kantuan: lau ikastetxeetako bana, Musika Eskolako, Doinu Zale musika eskolako, Parrokiako Abesbatza, Kantuz eta Ozenki Abesbatzak. Talde bakoitzak bi kanta kantatuko ditu eta bukaeran denek batera kantatuko dute. □

**ADARRA**
ETXE TRESNAK S.A.
Txirrita 11
Tel. 943 55 04 27
20120 HERNANI (Gipuzkoa)

BERTAKO FRUTA ETA BARAZKIAK
Ezkerro
Fruituak
Antziola 5
20.120 HERNANI
Bertako produktuak
Fruitu exotikoak
Telefonoz eskatzeko:
943 33 32 75
Orain helbide berrian gaituzu:
ANTZIOLA 5

Jatetxea

Venta Berri
Arano - Nafarroa
(948) 51 40 18
Larunbatetan itxita.

HORBEL
Bokatak, pintxoak, razioak, platerak, ensaladak, sandwichak, hanburgesak

Etxeraino eramango dizugu.
Eskatu!
Lizeaga kalea 4
Tel.: 943 33 33 95


OKINDEGIA
ANTZIOLA
Betiko lekuan gaude, eguneroko ogirik onena banatzen!
ANTZIOLA 3 - Tel. 943 55 17 91

ANTZIOLA KAFETEGIA
Ogia, pastelak, gozokiak, kafea, refrescoak, ...
Bi ordenagailu, jendearen erabilerarako.
Erakusketak.

MONTEBIDEO, 3 behe

MATHABO KUNENE -HEGO AFRIKAKO KONGRESU NAZIONALEKO KIDEA

“Hego Afrikako Konstituzio eta Parlamentu berriaren sorreran emakumeek zeresan haundia izan genuen alde z aurretik ondo organizatuta geundelako”

- Kunenek hitzaldia eman zuen Biterin eta Udaletxean harrera ofiziala egin zioten gero
- Hego Afrikan, liberazioa ezker emakumeen egoera nola hobetu den azaldu zuen.

MATHABO Kunene Hego Afrikako Kongresu Nazional-eko kidea da eta bere herriko mugimendu feministaren aintzindarietakoa. Atzo hitzaldia eman zuen Biterin. Hitzaldiari hasiera, hala ere, Aihora Epelde Euskal Herriko Bilgune Feministako kideak eman zion, beren lana eta helburuak Kuneneri azaltzeko. Kunenek hartu zuen hitza ondoren eta Hego Afrikan emakumeen egoerak eman dituen aurrerapausoak nabarmendu zituen.

“Emakume asko da agintean” Kuneneren hitzetan Hego Afrikaren liberalizazio prozesuan emakumeek garrantzia haundia izan dute eta Konstituzio eta Parlamentu berriaren sorreran ere bai. Gaur egun emakume asko dira ministro eta erakunde asko dauzkat sortuak emakumeen eskubideen alde egiteko. Emakumeen egoera hobetzeko egiten diren ahaleginak azaltzeko adibideak jarri zituen Kunenek: Gobernuak beretzat lan egin behar duen enpresei exigitzen die sozioen % 30 emakumeak izatea; agintarietan hirutik bat emakumeak dira eta presio haundia egiten dute beren eskubideak aldarrikatzeko gaietan...

Kunenek azpimarratu zuen, baita ere, tokian tokiko burruka egin behar dela emakumeen eskubideen alde, beharrak eta kulturak desberdinak direlako,



Mathabo Kunene eta Maria Colera itzultzailea, atzo Biterin.



Karmen Etxeberrriak Etxeraten kinkea eman zion Kuneneri.

baina, herrien arteko elkarlana eta elkarrengandik ikasteak ere garrantzia haundia duela esan zuen eta Euskal Herria eta Hego Afrikako taldeen arteko harremana bultzatzeko interesa azaldu zuen.

Harrera Udaletxean
Hitzaldiaren ondoren harrera

ofiziala egin zioten Kuneneri Udaletxean. Mertxe Etxeberrria Alkateak lore sorta bat eta euskal olerki bat eskeini zizkion eta Karmen Etxeberrriak (Xabier Arnaiz preso hernaniarraren amak) Etxerat taldearen izenean taldearen kinkea, painelua eta banderola eman zizkion Kuneneri. □

■ XAKEA -HERNANIKO TXAPELKETA

Gaur, izen emateko azken eguna

HERNANIKO Xake Txapelketa laister hasitekoa da eta gaur bukatuko da izen emateko epea, gaueko 22:00etan. Izen emateko, Bodega, Aker, Haida, Gadaffi eta Kittotik pasa. Partidak ere 5 taberna horietan jokatu dira, datorren astetik aurrera. □

Manifestazioa eta itxialdia gaur Ezker Abertzaleak deituta

MANIFESTAZIOA eta itxialdia antolatu ditu Hernaniko Ezker Abertzaleak gaurko. “Ezker Abertzaleak eta Euskal Herriak jasaten duten egoera salatze” manifestazioa da. Gaur 20:15etan Gudarien Plazan eta manifestazio ondoren itxialdia izango da Udaletxean, larunbat goizarte. □

■ HITZ BITAN.

✓ BERTSOLARITZA

Taldeak Txapelketako saioa gaur. Finala erabakiko duen saioa jokatu da gaur Santa Barbara puntan, Hernaniko Taldekako Txapelketan. Tellerigain, Urumea Erreka eta Martindegi neurtuko dira 22:30etatik aurrera. Finala hilaren 22an izango da Larregainen, bazkal ondoan.

✓ BERRIAK ELKARTEA

Kale animazioa gaur. Berriak elkarteak Kale animazioa antolatu du gaurko, herriko gaztetxoentzat. Arratsaldeko 18:00etatik 19:30etara Hortzmuga taldekoak ibiliko dira kalez kalez.

✓ ATEJOKA TALDEA

Etxebizitzari buruzko hitzaldia gaur Biterin. ATEJOKA taldeak hitzaldia antolatu du etxebizitzak euskal kulturari izan duen garrantzia eta gaur egungo egoera aztertzeko. Hitzaldia Nekane Juradok emango du gaur 18:30etan, Biterin.

✓ AEK EUSKALTEGIA

Pintxo Txapelketa gaur. Urteroko Pintxo txapelketa egingo dute gaur AEK euskaltegian, Larramendi 11n. Talde bakoitzak 3 pintxo aurkeztuko ditu lehiaketara eta behin sariak banatu dituztenean, pintxo-poteoa egingo dute gelaz gela. Gaur 20:00etan.

✓ HERNANI INSTITUTUA

Antzerkia Inglesez, gaur Biterin. Hernani Insti-tutuak antolatuta antzerkia izango da gaur ingelesez. Hernani Institutuko ikasleek gain Langile ikastolako 4. DBHko ikasleak ere izango dira antzerkia ikusten. Hernani Institutuko arduradunek Kronikari adierazi diotenez helburua da ikasleek inglesa gelatik kanpo ere entzun eta motibatzea. Gaur, 10:30etan Biteri kultur etxean.

✓ EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

Iruñara joateko dei egindu du Hernaniko EHEk. Hernaniko Euskal Herrian Euskaraz taldeak bihar Iruñako manifestaziora joateko dei egin du. Manifestazioa Oinarriak taldeak deitu du euskerak Nafarroan jasaten duen egoera salatze eta 17:30etan izango da. EHEk dio Nafarroako Gobernu euskararen aurka hartzen ari den neurri eta erasoaren tamainakoa behar duela erantzunak. Gainera diote erasoak Euskal Herri mailako beste edozein erasoren moduan hartu behar ditugula, eragina Euskal Herri osorako baitute. Autobusak Andoaindik aterako dira 15:30etan. Txartelak Irunberri elkarteak. □

✠ MARIA IZAGIRRE ESNAOLA

ANDREA

(Franzisko Garmendiaren alarguna)

Asteartean hil zen Hernanin, 96 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta.

-Goian bego-



Seme-alabak: M^{re} Karmen, Juan Bautista eta Juana, Lore eta Angel eta Itziar eta Javier; **bilobak:** Jon eta Rosa, Xabier eta Itziar, Eneko, Eunete eta Iñaki, Juan Angel eta Elena, Iñigo eta Mercedes, Anelore eta Ruper, Xabier, Itziar eta Iñigo eta Inazio; **iloba:** Arantxa; **lehengusuak** eta gainerako ahaideak. Haren animaren alde otolitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **OSTIRALA**, 13an, arratsaldeko **ZAZPIETAN**, (Hernaniko) **SAN JUAN BAUTISTA** parrokiaren egingo den hileta elizkizunera. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2002ko abenduaren 13an

Zuzenbidea: Kardaberaz kalea 54

OHARRA: Gorputza Hernaniko Zaharren Egoitzako TANATORIOAN dago. Gorputz laguntza familia artean egingo da.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

►Taxiak: 943 550093
►Udaltzaingoa: 943 333288
►DYA: 943 464622
►Autobusak: 943 556662
►Anbulatorioa: 943 006666
►Jokalarri anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

►Egunez: Bulnes
Florida auzoa
☎ 943 557738
►Gauetz: Elizondo
Andoain. Zumea 30
☎ 943 592629

AMEGAR
etxe tresnak
altzariak

Bisita ezazu gure web orria eta ikusi gure eskaintza.
www.amegar.net

Txirrita kalea 15 - HERNANI
Tel 943 551125 - Faxa 943 551603

GARAYAR AUTOBUSAK

**AUTOBUS ZERBITZUA
LINEA ERREGULARRAK**
Hernani - Aiete- Donostia - Aiete- Hernani
Andoain-Urnieta-Hernani-Donostia-Hernani-
Urnieta-Andoain
**ZERBITZU DISKREZIONALAK
(ESKOLARRAK)**

Jauregi bailara 17 - Tel: 943 556 658 - 943 556 662
Faxa 943 331 208 - e-maila: mgarayar@facilnet.es
20120 HERNANI (Gipuzkoa)

AKADEMIA LATINO BERRIA

HABANA SWIN

Saltsa, txarra txarra,
batxata, merengea...
**KUBA eta KARIBEko
erritmoak**

IKASTAROKAK
Umeentzat eta helduentzat
Kubako irakaslea: **DAYAMI**

Tel.: 943 55 69 13 - 616 26 38 71
HERNANIN (Larramendi kalean)

ETXE ONENAK. S.A.

**GARAJE ITXIAK
'OBLATOS'ETAN
SALGAI**

Informatu eta saldu:
☎ 943 33.22.37